

UKIROLAK



URIBE KOSTAKO ZERBITZU MANKOMUNITATEKO
EUSKARA ZERBITZUA



UNAI BASURKO VENDEE GLOBE-N LEHIATZEKO PRESTATZEN ARI DA,
MUNDUARI BIRA, BAKARKA ETA GELDITU GABE

Haize Alde

EBE

Euskal Bodyboard Eskola, duela hiru urte sortu zuten Sopelanako zenbait gaztek, bodyboarda indartzeko asmoarekin.

5

ASIER ETA EDUARDO

Berangoko Txirrindulari Elkarteko Asier Hildagoren eta Eduardo Aguinacoren helburua ongi pasatzea da.

6-7

ANDONI SANTIAGO

Arrautzaldeon futbol taldea sortu zenetik Andoni aldi berean jokalaria, presidentea, idazkaria eta entrenatzailea izan da.

10

UNAI BASURKO DE MIGUEL

ITSAS - GIZONA

“Pakea Bizkaia eta biok Vendée Globe-n irteerara iristea espero dut”

ERRONKA BERRIA DU PORTUGALETEKO ITSAS-GIZONAK, DAGOEN LEHIAKETARIK GOGORRENA: VENDEE-GLOBE, MUNDUARI BIRA BAKARKA, GELDIALDIRIK ETA LAGUNTZARIK GABE



Vendée Globe lehiaketak Velux 5 Oceans bira baino baldintza gogorragoak ditu. Zeintzuk?

Hori ez da horrela, baldintza ber-berak ditu. Ezberdintasun bakarra geldialdirik ez izatean datza, beraz denboraz luzeagoa da eta zerbait apurtuz gero ez dago konpontzeko aukerarik. Itsasoa eta haizea ber-berak dira, eta ibilbidea ere bai.

Arazo teknikoren bat baduzu, zer gertatzen da, adibidez portu batera joatera behartuta bazaude?

Aingura edozein tokitan jaurti daitekeela dio arauak, konponketak edozein tokitan egin daitezke, beti ere norberak egiten baditu, kanpoko laguntzarik gabe.

Zure lehen bira izan zen Velux, eta amaitzea zen helburua. Hirugarren amaitu zenuen. Orain helburu handiagoak al dituzu?

Orain bertan nire erronka nagusia Pakea

Bizkaia eta biok Vendée Globe-n irteerara iristea da. Abiatzen garenean amaitzea izango da helburua, ez da gutxi eta. Hortik aurrera iristen den guztia, ongi etorri.

Estropada hontarako laguntza handia jaso du Pakea Bizkaia egitasmoak, zenbait milioiko aurrekontuarekin, batik bat Bizkaiko Foru Aldundiak jarria. Erantzukizun handiagoa al da hori?

Nire lan egiteko modua beti izan da babestu nautenekin arduratsua. Vendee Globe egitasmo zati garrantzitsua da Bizkaiko Foru Aldundia, baina aurrekontua ixteko lanean jarraitzen dugu. Ohorea da niretzat mundu osoan zehar Bizkaia izena eramatea eta Euskadin bela sustatzea.

Berriki, udaberrian Artemis Transat lehiaketa bertan behera utzi zenuen... Agian Pakea behar bezala prestatzeko astirik izan ez zenuelako?

Artemis Transat egitasmoa hasieratik izan

zen garrantzitsua ontzia behar bezala prestatzeko, eta horrela izan da. Atlantikoan 4.000 itsas milia egin ditugu, eta hori erabilgarria izan da ontzia prestatzeko. Lehiaketa bertan behera uzteko erabakia ongi pentsatuta hartu nuen, eta egokia izan zela esango nuke, ez zeukalako zentzurik ontzia hondatzeak, gure egitasmo nagusia hasi baino lau hilabete lehenago. Baldintzak oso gogorrak ziren. Garrantzi handiagoko asmoek zerikusia izan zuten erabaki zail honetan.

Nolako izan da udako prestaketa?

Ontziko detaile txikiak prestatzeko lanean ari gara, nabigazioa segurua izan dadin, azkarragoa eta, ahal den heinean, erosoagoa. Horregatik ezinbestekoa da ahalik eta kosto-ondoko nabigazio gehien egitea.

Pakea eta zu “adiskide handiak” zineten Velux-en, orain egonkortutako bikotea al zarete?

Egitasmo guztietan atsegina Pakea-Bizkaia



eta biok elkarrekin hazi eta garatzea da, eta hori ari gara lortzen. Egun, elkarrekin 70.000 itsas-milia baino gehiago nabigatu ditugu, Australian eraiki genuenetik. Adiskidantzako harreman hori sendotzen jarraitu nahi dut.

Zeintzu dira ontziari egin dizkiozun aldaketa nagusiak?

Elektronika hobea dugu, bela berriak ditugu, lemak, sokak, irudia aldatu dugu. Azken batean, ontzi segurua eta azkarragoa egitea lortu dugu.

Izango dituzun aurkariei dagokienez ere, lehiaketa gogorragoa da. Zazpi patroiz izan zineten Velux-en, eta hogeitik gora izango zarete orain, munduko onenak. Nola ikusten duzu zeure burua hainbeste oilarren artean?

Patroi bakoitzak bere helburuak finkatzen ditu, duen esperientziaren eta aurrekontuaren arabera, eta aukera guztiek begirune osoa jasotzen dute gure artean. Kanpoko laguntzarik onartzen ez duen erregata batean, apurtzen ez duenak amaitzen du. Beti egiten didate harreman ona eta lagun ugari dut lehiakideen artean, ikasten jarraitzeko.

Zein da zure ustez favoritoa?

Ez da erraza, 10 patroiz baitaude irabazteko aukerekin. Inoiz egin den erregatarik lehiakorrena izango da, ez bairik gabe. Lagunak ditudalako, agian Loick Peyron, Bernard Stamm edo Mike Goldwin-ek irabaztea nahi nuke...baina denok helmugara iristea da benetan nahi dudana.

Kontaiguzu, geldialdirik gabeko erregata izanik, ontzia behar bezala hornitza oso garrantzitsua izango da.

Bai, zalantzarik gabe. Jakiak aukeratzea, konponketarako tresnak, jantziak...ontzian gerta

litezkeen arazo guztiei aurre egiteko ezinbestekoa da hautaketa-lan ona egitea, eta arazoak etorri, etorriko dira.

Zure aurreikuspenen arabera, zenbat hilabete egongo zara ontzitik jaitsi gabe?

Azkar da zerbaketa zehatza egiteko, baina 100 nabigazio-egun inguruan egitea gustatuko litzaidake.

Zenbat janari kilo eramango dituzu?

Janari zerbaketak egiterakoan, bada ez bada, behar dena baino askoz ere jaki gehiago eramaten da beti, lehiaketa uste baino gehiago luzatzen bada, nahikoa izateko. Oso garrantzitsua da janari arinak eramatea, energiadunak izatea, zama-arazorik ez sortzea, eta jasango ditugun muturreko tenperaturekin ez galtzeko gaitasuna izatea.

Ura?

Aurten, ontzian eramango ditugun berrikuntzen artean ur gazia gezatzeko tresna bat izango dugu. Abantaila hau izanda ere, larrialdietarako botellako ura eramango dugu. Bero handia egiten duen egunetan 6 litro ere edaten ditut egunear.

Zure ibilbidea satelitez jarraitzeko aukerarik izango al duzu?

Bai, atal honetan ere berrikuntzak egin ditugu aurreko egitasmoarekiko. Satelite-bidezko sistema jarri dugu, telefonoz hitz egin ahal izateko, eta baita irudiak bidaltzeko ere.

Horrela, komunikabideak eta zaletuak hobeto informatu ahal izango ditugu. Gainera, egitasmoaren web orrian (www.pakeabizkaia.com) eta erregatako orrian (www.vendeeglobe.org) gertatzen den guztia minutuz-minutu jarraitu daiteke ■

NOR DA?

Izena:

Unai Basurko de Miguel

Jaioterria:

Portugalete

Adina:

35

Bizilekua:

Getxo

Lorpenak:

3. sailkatua VELUX 5 OCEANS 2006/07, munduari bakarkako itzulia.



BELA puztuta

Estimaten duzun kirolaria:

Alberto Iñurrategi

Itsasgizona ez bazina...

Mendizalea

Ametsa:

Vendée Globe amaitzea

Zaletasunak:

Itsasoarekin eta naturarekin

Jakia:

Erreboiloa parrilan

Toki bat:

Patagonia

Bertutea:

Adorea

Ohitura bat:

Ontzia txukun izatea.

Piragua, denentzat kirol egokia

Piraguarekin denetarik egin daiteke: itsasoko uretan zeharkaldi lasai batetik hasi eta ibaiko ur zakarretaraino.

Ur-kirola da piraguismoa, gizakiak ura menpean hartzeko zuen beharretik sortua. Horregatik, munduko bazter guztietako gizon-emakumeek erabili dituzte era bateko edo besteko ontzi txikiak, xumeak baina eraginkortasun eta mugikortasun handikoak.

Ontzi arin baten gainean egiten da piraguismoa, beira zuntzeko edo plastikozko piraguetan, edota kevlar edo karbonoz eginikoetan, lehiaketarako badira. Arraun edo pala baten bitartez lagun bakar batek, bik edo lauk bultzatutakoak izaten dira. Piragua-ontzi nagusiak honako hauek dira: kayak (K) eta kanoa (C). Kayakean bi aldeetatik arraun egiten da bi alde dituen palagaz, eta kanoan, aldiz, alde bakar batetik alde bakarra duen palarekin aritzen dira.

Piraguan hiru kirol ezberdin egin daitezkeela esan daiteke, uraren arabera. Itsasoan, ur lasaietan eta ibaiko ur zakarretan aritu daiteke.

Itsasoko piraguak izaten dira luzeenak, 5 metro inguruak, eta zeharkaldi baterako behar diren tresna guztiak sartzeko gune lehorrak izaten dituzte.

Ur lasaietako piraguak lehiaketa olinpikoetan erabiltzen dira, lehiaketa labur eta luzeetarako -200 metrotik 5.000 metroraino- edo maratointarako. Bidasoa, Sella eta Plentziako ibaiak jaisteko ere erabiltzen dira. Azkenik, **ur-zakarretarako piraguak** gero eta jarraitzaile gehiago dituzte. Badira urte batzuk "rodeo" lehiaketak sortu zirela, ibaiko olatuetan aritzeko. Plastikozkoak izaten dira piraguok, eta laburragoak, bi metro inguruak. Ur-zakarretako piraguak slalomean edota erlojuaren kontrako lehiaketetan erabiltzen dira. Proba hauetan oztopo batzuk zeharkatu behar izaten dira, ibaian jarritako atek gainditzearekin batera.

OINARRIZKO EKIPAIA

Edozeinentzako moduko kirola da piragua, 8 urtetik aurrerako edonork egin baitezake. Norberak aukeratzeko du zeharkaldi lasaiak egin nahi



dituen edo, aitzitik, abenturazko jaitsiera zirrargarriak atseginago dituen.

Nolanahi ere, oinarritzko segurtasun arauak ez dira inoiz ahaztu behar. Itsasoa atsegin dutenek piraguaren sarbide nagusiarentzako estalkia beharko dute, piragua ez dadin urez bete. Itsasoan segurtasun-jantzia eta arrauna ere behar dira. Norberaren esku dago ura ateratzeko bonba, segurtasun lokarriak, boltsa lehorrak, edota GPSa eramatea, bidaiaren arabera. Itsasoan eta ibaian, ezinbestekoa da eskimotaia egiten jakitea, hau da, buruz-behera gelditu ondoren ontzia bere jatorriko egoeran jartzeko jakitea.

LEHEN IKASKETAK

Piraguan hasi aurretik lagungarria da ikastaroen bitartez oinarritzko arauak ezagutzeko. Barrika Piragua Taldeak astebeteko ikastaroak eskaini ditu udan zehar, 55 euroren truke. Kayakean aritzen, ontzi barrutik ura ateratzen eta buruz-behera jartzean ontziari bira ematen irakasten dute, besteak beste.

Hastapen ikastaro hauen helburu nagusia piragua aisialdirako aukera bikaina dela erakustea izaten da, betiere adiskidantzazko irizpideetan oinarrituta, joko garbia, dopingaren kontrako borroka eta indarkeria-eza ardatz dituela, inor baztertu gabe.

Hortik aurrera, atsegin duten guztiek taldean izena eman dezakete, eta taldekide guztien laguntzarekin ikasten joateko aukera izango dute, beharrezkoak diren azpiegitura eta tresna guztiak bertan aurkituko dituzte eta, esperientziadun begirale eta entrenatzaileekin batera.

Barrika Piragua Taldea Larretxe Auzoko 14.zenbakian dago (Plentzia ondoan). Argibide gehiago nahi izanez gero deitu 605717152 telefonora, begiratu <http://barrikapiragualdea.blogspot.com> blogean edo idatzi blogbpt@telefonica.net postara ■



EBE, Euskal Bodyboard Taldea

Bodyboard-arekin gozaten espezialistak



EBE, EUSKAL BODYBOARD ESKOLA, DUELA HIRU URTE SORTU ZUTEN SOPELANAKO ZENBAIT GAZTEK, BODYBOARDA INDARTZEKO ASMOAREKIN.

Izan ere, makina bat surf eskola sortzen ari zela ohartu ziren baina, aitzitik, bodyboard-ean irakasle espezialisten bidez ikastea aski zaila zela. EHSF, Euskal Herriko Surf Federazioaren laguntzarekin, ikastetxeetan ikastaro eta hitzaldiak emateari ekin zioten.

Hala ere, kirola sustatzeko biderik zuzenena, jendeak munduko bodybordean onenak zuzenean ikustea zela pentsatu zuten EBE-n. Beraz, munduko txapelketa antolatzeari ekin zioten. Lehen lehiaketa Europa mailakoa izan zen, baina iaiztik, munduko kirolari onenak etorri ohi dira Sopelanara. Abuztuan egin den "Sopelana BBK Pro" txapelketak Arriatera hondartzan elkartu ditu Hawaii, Australia, Brasil, Portugal, Japonia eta Euskal Herriko espezialistarik onenak, Eunate Aguirre, David Pérez, Aritz Larrinaga eta Antonio Ortiz, tartean direla, denak EBE-ko kideak. Etxekoak esateak ez du esan nahi maila apalagoa dutenik, Munduko eta Europako txapeldunak baitaude zerrenda horretan.

Maila guztietako ikastaroak eskaintzen ditu EBE-k, hastapenetatik, estiloa finkatzerainokoak. Bodyboarda lehen aldiz ezagutu nahi dutenak izaten dira ikasle gehienak, baina txapelketetan esku-hartzeko beharrezkoak diren arau eta bitxikeriak ezagutu nahi dituztenek ere EBE-ko irakasleengana jotzen dute maiz. Nahi duenak, eskuragarri du alokairuko materiala ere (taulak, trajea, aletak).

Itsas bazterrean dago eskola, Sopelanako Arriatera hondartzan, sorosleen ondoan. Argibide gehiago nahi dutenek informazio guztia www.ebeskola.com web orrian eskura dute.

Kirola ezagutzera animatu nahi dute jendea EBE eskolan. Jendea erakarri eta itsasoari lotzeko gaitasuna duen zaletasuna dela dioskue irakasleek, olatu bat hartu eta gainean ziztu batean joatea bezalakorik ez omen dagoelako. Adinik eta sexurik ez duen kirola da, 6 urtetik gorako neska-mutil guztientzat benetan gomendagarria ■

BERANGOKO TXIRRINDULARI ELKARTEA

"Ongi pasatzea irabaztea baino garrantzitsuagoa da"

Asier Hidalgo eta Eduardo Aguinaco Berangoko Txirrindulari Elkarteko bazkideak dira, eta biek diotenez adiskidetasunari esker dirau bizirik txirrindulari elkarte honek.



Berangoko Txirrindulari Elkarte zikloturisten elkarte batetik eratorritako talde batek sortu zuen. Duela 6 urte Javier Garciak bere gain hartu zuen elkartearen ardura eta eskolan hainbat aldaketa egin zituen. Apurka-apurka ikasle kopurua handitzen joan da, egun dituen 63 neska-mutilera iritsi arte.

Eduardo Aguinacok urte eta erdi darama Berangoko Txirrindulari Elkartean irakasle. Bere esanetan, helburu nagusia "haurrek ongi pasatzea da, eta horretarako tresna bat besterik ez da txirrindua". Horregatik, eskolan ahalik eta gauza gehien irakasten saiatzen dira "ez txirrindularitza bakarrik, bestelako jarduera batzuk ere antolatzen dituzte, hala nola: mendi-irteerak, asteburuetak irteerak edo lehiaketak ikusteko egiten diren txangoak. Lehenetsuna elkarren arteko "feeling" ona bultzatzea izaten da, denok talde bateratua osatzeko". Horregatik ezohiko eskola dela esan daiteke. "Gerta daitekeen gauzarik ederrena, gazteenek miresten dituzten kirolariak elkarte bereko helduenak izatea da". Bide horretan, kanpaina ikusgarria ari dira egiten aurten gaztetxoak. "Kirola albo batean utzita, guretzat lorpen handienetakoa Bizkaiko Federazioak eman digun saria izan da, Bizkaiko Txirrindularitza eskola bikainena izendatu baidakaitu".

KALEAN DAGO TXIRRINDULARITZA

Irabaztea ez da elkartearen lehenetsuna edo helburu nagusia. Garrantzitsuena gazteak batu eta kirola eginez dibertitzea da. Aguinacoren ustez "ongien pasatzen dakienak irabazten du".

Mutil eta neskei zuzendutako mezua da, genero kontuetan ere aitzindaria baita Berangoko Txirrindulari Elkarte, %38 neskak izaki. Gainera, neska nerabeen talde bat osatzea dute buruan. "Horrek guztiak laguntzen dizu jarraitzen, gero eta neska eta mutil gehiago dagoela ikustek".

Asier Hidalgo gaztetxoan mailan hasi berria da. Lehen urtean 4 edo 5 lasterketa baino ez zituen amaitu, baina aurten bikain dabil, lehiaketak amaitzeaz gain, goian ibili da eta. Horrek frogatzen du ordaina izaten dutela entrenamenduek, orduak eskaintzeak eta egitura bateko kide izateak. "Entrenuetan adiskidantzazko harremanak sendotzen dira, ez lasterketetan bakarrik. Denok elkarri laguntzen diogu, eta horrela jarraitzen dugu, pozik" dio Asierrek. "Hobetzen ari banaiz, ongi pasatzen dudalako izango da, eta hala izan delako beti, duela lau urte hasi nintzenetik".



Asierrek etxetik ikusten zituen beti lasterketak, eta horrela erabaki zuen taldean hastea. "Txirrindularitza kalean dago, jendeak ikusi egiten gaitu eta eskolara hurbiltzen dira" diosku Eduardok. "Txirrindularitza atseginen dudana lagun arteko giroa da. Beste kirol batzuetan, futboleko kasu, ez dago halakorik" onartzen du Hidalgo. "Hobebetzen noan ahala, motibazio handiagoa dut eta atseginagoa dut kirol hau. Gainera entrenatzailearen, gurasoen, presidentearen eta adiskideen laguntza jasotzen dut. Horrela ari naiz lasterketak apurka-apurka amaitzen".

ETORKIZUNENKOA ERRONKAK

Hidalgo eta Aguinacok aho batez diote txirrindularitzak entrenuetan etengabeko esfortzua eskatzen duela. "Hala ere ez da sakrifizioa. Urtean zehar bi eta hiru egun entrenatzen ditugu astean, eta udan hiru egun" dio Asierrek. Etorkizunari begira, gaztetxo honek bigarren urteko jubentzetara iritsi nahi du. Hala ere, bere irakasleak etorkizun hobea ikusten dio. "Asier entrenatzaile handia izango da, seguru. Dena dauka, bizikleta atsegin du, haurrak ere bai eta ongi pasatzen daki".

Berangoko eskolan duten beste erronka bat ideia freskoak dituen gazte-jendea lortzea da. Horregatik nerabeak entrenatzaile ikastaroa egitera animatzen ari dira, eskolan profesional gisa aritu daitezela. Aguinacok dio "eskolan erein genuen ideia hau eta laster uzta jasotzea espero dugu". Hidalgo ere gauza bera uste du: "lehiaketak uztean badakit zikloturista izango naizela, edo entrenatzailea edo agian bi gauzak batera".

Berangoko Txirrindulari Elkarteak gazteen arteko kirola bultzatu nahi du. "Txirrinduaren onurak denok ezagutzen ditugu, ez kirol bezala bakarrik, baita garraiobide egokia delako ere, erabat garbia. Klubean seguru aritzeko bitartekoak eskaini nahi dizkiegu gazteei. Eskola gehienek irabazleak nahi dituzte, baina irabazi ostean eskola bera galtzen dute" ■

biografiak

ASIER HIDALGO GUTIERREZ

2. urteko kadetea

Adina:
15 urte

Bizilekua:
Berango

Kluba:
Berangoko
Txirrindulari Elkarte

Oroitzapen onena:
Zornotzako lasterketa,
amaitu nuen lehena izan
baitzen.



EDUARDO AGUINACO

Entrenatzailea

Adina:
47 urte

Bizilekua:
Berango

Kluba:
Berangoko
Txirrindulari Elkarte

Oroitzapen onena:
Eskolako haur
txikienetako baten
agurra



ELORTZA ESKOLA PUBLIKOA

KIROLAREKIN HARREMAN ONA LANTZEN

URDULIZKO ESKOLA PUBLIKOAK IKASLE GUZTIAK KIROLA EGITERA ANIMATZEN DITU, OSASUNGARRIA EZEZE LAGUN ETA INGURU BERRIAK EZAGUTZEKO AUKERA PAREGABEA BAITA.



Urdulizko Elortza Ikastetxe Publikoko 140 ikasleek kirola egin ahal izateko aterpeko gimnasia eremua, bai eta futbito eta saskibaloiko kantzak ere badituzte. Agian ez dira behar adinako azpiegiturak, baina oraingoz ahal den moduan kirola egiten jarraitzen dute. "Laister hasiko dira erreformak, bistakoa baita gimnasio handiagoa behar dugula, bai eta bestelako azpiegiturak ere, dutxak etabar." Hala dio Joserra Astorekak, hezkuntza fisikoko irakasleak. Bere hitzetan "urtero erosten dugu kirolerako material berria, baina urtetik-urtera gehiago behar dugu".

Hala eta guztiz ere, irakasleek ahal duten guztia egiten dute ikasleek kirola egin dezaten. Asteaz hezkuntza fisikoko hiru klase ematen dituzte, adinaren eta ikasturteen arabera moldatutakoak. "Beti saiatzen gara gorputza eta irudimena lantzen" dio irakasleak. Astorekaren ustez, gauza nagusia neska-mutilek ongi pasatzea da, eta dibertitzen ikastea". Gainera, kirolari atxikitako hainbat gauza ere ikasten dute, hala nola: adiskidetasuna eta elkarlaguntza. Txikienekin jolasak eta dantzak erabiltzen ditugu "horrela errazago eta erakargarriagoa da eurentzat".

Irakasgai guztiek komunean dute taldean lan egiten ikastea, duten adina izanda ere. "Taldeko kirolak oso erabilgarriak dira elkarlanean aritzen ikasteko, harremanak estuzeko, adiskidantza izatera indartzeko", onartu du Joserrak. Gainera, jolasen bidez elkarlaguntza bezalako baloreak sustatzen dira, "guztien artean ekintza bat irabazteko zer egin behar den irakasten diegu. Bi aldeetan jartzen irakatsi nahi diegu, alegia, irabazten eta galtzen ikastea nahi dugu".

KLASETIK AT

Hala eta guztiz ere, klasean egiten dutena ez dela nahikoa onartzen du Astorekak. Horregatik ikastetxeak amaitzean kirola egitera animatzen dituzte gaztetxoak. "Neska mutilei eta beren gurasoei azaltzen diegu kirola egitea zenbaterainokoa den mesedegarria, adin hauetan batik bat, hain gazte direnean. Gorputzari eta buruari mesede egiten die kirolak, jarduera fisikoaz gain jende eta inguru berriak ezagutzeko aukera baita".

Urdulizko eskubaloiko taldeak laguntza handia eman die, ikastetxera maiz joaten

baitira kirola nolakoa den irakastera, eta klaseak amaitzean beraiekin aritzera animatzen dituzte. Gainera, hondartzan beste herrietako gaztetxoekin topaketak antolatzen dituzte, leku eta lagun berriak ezagutzeko aukera emanez. Ikastetxeko gaztetxoen artean arrakasta handia dute, hipikak eta igeriketak.

Ikastetxean saiatzen dira egiten dituzten irteerrek kirolarekin zerikusia izaten. "Iaz Butroira joan ginen, eta piraguan, arkuarekin eta tirolin aritu ziren" dio Astorekak ■



INKESTA

- 1. ZEIN KIROL** egiten duzu?
- 2. OLINPIADETAN PARTE HARTZEKO AUKERA IZANGO BAZENU** zein kirolean gustatuko litzazuke?



ACHRAF CHACOUR
(11 URTE)

- 1.- Igeriketa, pala, futbola eta frontenisean aritzen naiz, besteak beste.
- 2.- Olinpiadetan lasterketak egitea gustatuko litzaidake edo igeri egitea ere bai.



SERGIO GONZÁLEZ
(11 URTE)

- 1.- Futbola, pala eta frontenisa egiten ditut eskolatik kanpo.
- 2.- Zalantzarik gabe futbolean nahiko nuke.



AITOR UNIBASO
(10 URTE)

- 1.- Fulbolean eta eskubaloian jokatzen dut.
- 2.- Olinpiadetan futbolean lehiatu nahi dut.



NAROA MARTÍNEZ
(10 URTE)

- 1.- Zaldian ibiltzen naiz eta igeriketa, dantza eta bizikleta ere egiten ditut.
- 2.- Olinpiadetan hipika egitea gustatuko litzaidake.



AINARA GALBARRIARTU
(10 URTE)

- 1.- Igeriketa sinkronizatuan eta bizikletan aritzen naiz.
- 2.- Olinpiadetan igeriketan parte hartzea gustatuko litzaidake eta nire taldeak ere bai.



AINHOA FIAT
(10 URTE)

- 1.- Eskolatik kanpo igeriketa eta sinkronizatua egiten ditut.
- 2.- Zerbait egitekotan igeriketan lehiatzea gustatuko litzaidake.

ANDONI SANTIAGO ASTORKIZA

ARRAULTZALDEON FUTBOL TALDEA

“Zaila izan da taldea ez haustea, baina lortu dugu”



Andoni Santiagok Arrautzaldeon futbol-taldearen alde egin duen lana oso handia da, sortu zenetik aldi berean jokalaria, presidente, idazkari eta entrenatzailea ere izan baita. Hala ere, udan erantzukizun batzuk alde batera uztea erabaki du eta presidentea baino ez da izango hemendik aurrera.

Nola sortu zen Arrautzaldeon Futbol Taldea?

Duela 14 urte, 1994ko udan, koadrilan erabaki genuen futbol taldea sortzea, kirol honen jarraitzaile sutsuak ginen guztiok eta. Geure taldearen izen bera jarri genion, Arrautzaldeon Futbol Taldea.

Koadrilakoak al zarete jokalaria guztiak?

Ez. Koadrilan bertan sortu zen ideia izan arren, lagun-taldekoak ezeze lagunak eta herriko ezagunak ere bildu ginen. Beste askok ahoz-ahokoari esker izan zuten gure berri.

Jokalaria zara, baina badituzu beste zenbait erantzukizun?

Hasieran guztiok geunden gauzak egiteko irrikaz. Baina urteek aurrera egin ahala, jendea zapuztu egiten da, ilusioa galtzen doa, eta norbaitek hartu behar du bere gain gutzia bultzatzeko ardura, Getxoko Udalarekin hartu-emanetan jarraitzeko, fitxak betetzeko etabar. Lehen bi urteetan jokalaria besterik ez nintzen, baina jendeak huts egiten zuela ikustean gidaritza hartu nuen, bide batez futbola barrutik ezagutzeko aukera ona zelako. Azken urteetan jokalaria, kapitaina, entrenatzailea, idazkaria eta presidentea izan naiz.

Hainbeste urte eta gero, nola lortzen duzue jarraitzea?

Zaila da, gu bezalako talde batek ez daukalako atzean egitura finkorik, eta gaur egun gu bezalako talde asko dagoelako. Urtero Getxoko Udalak diru-laguntza ematen digu, eta horri eskerrak lortzen dugu Faturako polikiroldegian doan entrenatu eta jokatzeko. Loteria ere saltzen dugu, eta duela gutxira arte babeslea ere bageneukan. Horrela erosi genuen ekipaia. Gainera, jokalariek eurek fitxak eta epaileak ordaintzeko zerbait jartzen dute.

Lan horren guztiaren ondoren, zergatik utzi?

Familiagatik, batik bat. Baina sakrifizio handia ere bada, abuztuan hasi eta maiatzera arte asteburuero entrenatu behar baita, partidak prestatu eta jokatu. Baina jokatzeari utzi arren, presidente lanetan jarraituko dut. Samintzen nau, egia esan, urte asko baitira eta lagun asko ezagutu baitut...

Nolakoa izan zen agurra?

Ezustekoa, erabat, polita eta zirraragarria. Nire emaztea izan zen, koadrilako lagunekin eta egungo eta aspaldiko jokalariekin batera. Oroigarria eman zidaten, argazkiak ere bai, eta aureskua ere dantzatu zidaten. Omenaldi guztiak bezala, alde ona eta txarra ditu, atzera egiteko aukerarik ez dizu uzten eta ■

Nor da?

Izena: Andoni Santiago Astorkiza
 Bizilekua: Algorta
 Adina: 38 urte
 Taldea: Arrautzaldeon Futbol Taldea

IRAILA

Tenis eta Padel Txapelketak Barrikan.

Irailaren 20tik 28ra Barrikan Abaroa Tenis Kirol Taldeak "Barrikan Udaletxe Opena", "Beteranoen Txapelketa Soziala" eta "Udazkeneko Padel Lehiaketa Soziala" egingo ditu.

Gorlizko XVII. Mountain Bike Martxa, Euskadiko Opena eta Bizkaiko Txapelketa.

Hilaren 27an, Gorlizen

Billabong Pro Mundaka surf txapelketa irailaren 29an hasiko da. Sopelana izango da txapelketako hondartza alternatiboa.

URRIA

Kintopeko probak Urriaren 3tik 5era, goizeko 9:00etatik aurrera, Andrakazen (Lemoiz)

Tenis eta Padel Rankingak Barrikan Abaroa Tenis Kirol Taldeak antolatuta, urriaren 4tik ekainaren 28ra osatuko dira rankingak Barrikan pistetan

AZAROA

Barrikan Tenis Eskola-Liga Azaroaren 3an, Barrikan Abaroa Tenis Kirol Taldeak antolatutako eskola-liga hasiko da (Benjamin, kimu eta haurren mailetan), Barrikan pistetan

ABENDUA

Gabonetako Pala Txapelketa Abenduaren 15etik 31ra, Lemoizen.

Gabonetako Tenis eta Padel Lehiaketa Sozialak, Barrikan Abaroa Tenis Kirol Taldeak antolatuta, abenduaren 20tik 31ra, Barrikan pistetan.

Basket Eguna 2008 Abenduaren 19tik 21era, Sopelanako Urko Polikiroldegian. Ugeraga Saskibaloia Elkarteko talde guztiek partida bat jokatu dute. Bestelako ekin-tzak ere antolatuko dira.

HIRUHILEKOAN ZEHAR

Urdulizko Futbol Taldea, Gusla Eskubaloia Taldea, Laubide Euskal Pilota Taldea eta Urdulizko Esku Pilota Taldearen partidak.

Bizkaiko Pilota Txapelketa, Palaz eta Eskuz. Kurene Pilota Elkartek eta Bizkaiko Federazioak antolatuta. Asteburuero (ostiraletan eta larunbatetan), arratsaldeko 18:30etan, Sopelanako udal pilotalekuan

Ugeraga Saskibaloia eta Futbol Partidak

URRIA

4an, *Saskibaloia (neskak)* Ugeraga - Txurdinaga, 16:00etan, Urko Polikiroldegian (Sopelana)
Futbola (neskak) Ugeraga - Enkarterri, 17:00etan, Urko



BILLABONG PRO MUNDAKA 2008 SOPELANAN

Sopelana Billabong Pro Mundaka 2008-ko leku alternatiboa izango da. Irailaren 29tik urriaren 12ra, Mundakan olatu nahikorik ez balego, munduko 45 surflari profesional Sopelanara etorriko lirake. Beraz, Kelly Slater, Bobby Martínez (2007-ko txapel-duna), Marc Occhilupo, Andy Irons, Joel Parkinson edo Taj Burrow kirolariak ikusteko aukera izango dugu. Hauen artean, hiru euskaldun lehiatuko dira, Aritz Aranburu, Hodei Collazo eta Marcos San Segundo, hain zuzen ere.

BERANGOKO 2008KO XXI. NAZIOARTEKO MILIA

Urriaren 4an, Berango A.T. Klubak eta Berangoko Udalak antolatuko dute Milia, Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzak, Deia eta bestelako merkataritza-erakundeek lagunduta. Berangoko Nazioarteko Miliak garrantzi handia du atletismoaren arloan, bai estatu-mailan baita nazioarteko mailan ere. Euskadiko eta bestelako herrialdeetako atleta onenek esku hartzen dute, eskola kirola, herri-kirola eta kirol federatua sustatzeko helburuarekin. 21. urte honetan Ernesto Diaz kazetariak omenaldia jasoko du, atletismoaren alde maitasunez egin duen lanagatik, TVE, Telenorte, Agencia EFE eta, besteak beste, Korrikolari aldizkarian erakutsi duen bezala.



Futbol Zelaian (Sopelana)
5ean, *Futbola*, Ugeraga A - San Pedro, goizeko 11:15etan, Urko Futbol Zelaian (Sopelana)

11n, *Saskibaloia (Mutilak)*, Ugeraga - Krafft Atlco. San Sebastian, 17:30etan, Urko Polikiroldegian (Sopelana)

18an, *Saskibaloia (neskak)*, Ugeraga - Boskozaleak, 16:00etan, Urko Polikiroldegian (Sopelana)
Futbola (neskak),

Ugeraga - Amorebieta, 17:00 etan, Urko Futbol Zelaian (Sopelana)

19an, *Futbola*, Ugeraga A - Sondika A, goizeko 11:15etan, Urko Futbol Zelaian (Sopelana)

25ean, *Saskibaloia (Mutilak)*, Ugeraga - Buytrago Jarrilleros, 17:30etan, Urko Polikiroldegian (Sopelana)

AZAROA

1ean, *Futbola (neskak)*, Ugeraga - Elorrio, 17:00 etan, Urko Futbol Zelaian (Sopelana)

2an, *Futbola*, Ugeraga A - Gatika A, goizeko 11:15etan, Urko Futbol Zelaian (Sopelana)

8an, *Saskibaloia (Neskak)*, Ugeraga - Saskel BT, 16:00etan, Urko Polikiroldegian (Sopelana)
Saskibaloia (Mutilak),

Ugeraga - Lizuan.com ISB, 17:30etan, Urko Polikiroldegian (Sopelana)

15ean, *Futbola (neskak)*, Ugeraga - Erandioko Betiko Neskak B, 17:00 etan, Urko Futbol Zelaian (Sopelana)

16an, *Futbola*, Ugeraga A - Retuerto, goizeko 11:15etan, Urko Futbol Zelaian (Sopelana)

22an, *Saskibaloia (Neskak)*, Ugeraga - Baiki Portugalete, 16:00etan, Urko Polikiroldegian (Sopelana)
Saskibaloia (Mutilak),

Ugeraga - Sugarrak Laudio, 17:30etan, Urko Polikiroldegian (Sopelana)

29an, *Futbola (neskak)*, Ugeraga - Arratia, 17:00 etan, Urko Futbol Zelaian (Sopelana)

30ean, *Futbola*, Ugeraga A - Balmaseda, goizeko 11:15etan, Urko Futbol Zelaian (Sopelana)

ABENDUA

13an, *Saskibaloia (Neskak)*, Ugeraga - Anbotopeko, 16:00etan, Urko Polikiroldegian (Sopelana)

Saskibaloia (Mutilak), Ugeraga - Santurtzi, 17:30etan, Urko Polikiroldegian (Sopelana)

20an, *Futbola (neskak)*, Ugeraga - Berri-Otxoa B, 17:00etan, Urko Futbol Zelaian (Sopelana)

21ean, *Futbola*, Ugeraga A - Apurte A, goizeko 11:15etan, Urko Futbol Zelaian (Sopelana) ■

PAKEA BIZKAIA-ren eskutik,
Unai Basurkoren kamiseta eta crock oinetakoak eskuratzeko aukera duzu
UKIROLAK -ekin!

**ZOZKETA
TXARTELA**

DATUAK:

Izen-abizenak:
Adina: Telefono zenbakia:
Ikastetxea:
Helbidea:

GALDERA:

Zenbat hilabete egongo
da Unai Basurko
ontzitik jeitsi gabe?
.....
.....



Txartela moztu eta bidali.
Erantzuna bidaltzeko epea:
urriaren 22a (Irakurle bakoitzeko,
erantzun bakarra)

**ERANTZUN
GURE GALDERARI**

Erantzun egokia helarazten
diguten guztien artean,
PAKEA BIZKAIA-ren eskutik,
Unai Basurko itsas-gizonaren
kamiseta eta crock
oinetakoak zozketatuko du
UKIROLAK -ek.

**AURREKO
ZENBAKIKO
IRABAZLEA:**

Spiuk taldearen eskutik, Virginia Berasategiren
equipamendu osoa honako honek eskuratu du:
Alaitz Corral Agirre